

Hezkuntza Publikoa indartzeko **DENOK GREBARA!**



Sukalde eta garbiketa:
U30-31 eta 019-20

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

ELA, LAB eta CCOO sindikatuek **lau greba egun deitu ditugu urtarrila (30-31) eta otsaila (19-20) artean.**

Greba egunak **gure lan-baldintzen sakoneko hobekuntza lortzeko helburuarekin** deitu ditugu. Horrela, urtarrilaren 30ean dinamika horri hasiera emango diogu, azken 15 urteetan pairatu dugun lan-baldintzen okertze prozesuarekin amaitzeko asmoz.

Greba egun horietan aldarrikatuko duguna gure lan-baldintzen sakoneko hobekuntza da eta zentzu horretan, hurrengoak dira azken ikasturteko mahai negoziatzaileetan eta gainerako lanketetan **ELAk aldarrikatu eta defendatu dituen oinarritzko edukiak:**

1. Lan kargak arintzeko neurriak

- Lanaldi murrizketa esanguratsuak.

Sukaldariak: 1387 ordu eta 30 minutuko urteko lanaldia. Urtean 185 egun lan egitea egunean 7 ordu eta erdiz.

Garbitzaileak: 1418 ordu eta 45 minutu urtean. Urtean 200 egun egingo dituzte lan, egunean 7 ordu eta 15 minutu. Uztailaren 1etik irailaren 15era udako lanaldi trinkoa eta lanaldia 6 ordutakoa izango da.

- Ratioak murriztu

Garbitzaileen kasuan:

- m2 beharrean garbitu beharreko espazioak m3 bidez neurtzea
- Arratsaldetan ikastaroak dituzten zentroetan langile bat gehiago

Sukaldarien kasuan:

- 10 Bazkaltiarretik gorako menu bereziek ordu bete gehiago izatea

- Ordezkapenak lehen egunetik

2. Funtzioak eta kategoriak

- Administrazio orokorreko sukaldari eta garbitzaileen funtzio antzekoak direnez hauekiko parekatzea planteatzen dugu bai funtzioen definizioan bai eta soldatan (erreferentzia gisa egokia baita)

3. Erretiroa aurreratzeko neurriak

- Itzarriko ekarpenak berreskuratu
- 60 urtetik aurrera %33ko lanaldi murrizketa eta 62 urtetik aurrera %50ekoa soldata eta kotizazio murrizketa gabe, metaketa aukerarekin.
- Errelebo kontratua baldintza onenetan finkoentzat eta behin behinekoentzat (%75eko lanaldi murrizketa eta metatzeko aukera jubilatzen denari eta errelebastari 100%eko kontratua lanpostua amortizatu gabe)

4. **Eros-ahamenaren berreskurapena, zorraren aitortza eta soldata igoerak.**

- Berehalako %5,4ko soldata igoera: 2021-2024 bitartean galdeutako eros-ahalmena berreskuratzeko.
- 2010-2021 aldiko eros-ahalmenaren galera zor gisa aitortu eta berreskuratzeko neurriak adostu (galera hori %11,85ekoa da). Hortaz, hitzarmenaren indarraldiaren baitan KPlaren gaindiko igoerak:
 - 2025erako eta 2026rako: KPI + %2ko igoerak (%11,85eko zorra kitatzen joateko neurri gisa)

5. **Enplegua**

- Behin behinekotasun tasak %8a ez gainditzeko 2 urtero LEP adostuak deitzeko betebeharra.
- Pribatizazio gehiagorik ez
- Inposatutako lanaldi partzialak ez; %50 baino gutxiagoko lanaldirik ezingo da egin.

6. **Lan osasuna bermatzeko neurriak**

- Arrisku psikosozial eta ergonomikoen azterketa burutzea eskola ba-koitzean eta urtebeteko epean neurriak adostea
- Lan kargak aztertzeke azterlana egitea.
- Azterketa medikuak bermatzea urtero langile guztiei

7. **Euskara.** Euskara plana adostuko da urte beteko epean. Plan honek ondorengo gutxieneakoak barnebildu beharko ditu:

- Lanean diharduten langileei euskalduntzeko baliabideak eta formakuntza egokia eta egokitua bermatzea lan orduetan.
- Lehen aldiz sukalde edo garbiketako lanpostu hauetako bat betetzeko, euskararen ezagutza nahikoa ziurtatu beharko du langileak, hizkuntza eskakizuna betez.
- Helburua epe jakin batean langile eta lanpostu guztiak elebidun izatea litzateke.

Lau greba eguneko dinamika abian jartzea lortu dugu! ELA prest dago aldarrikapenok lortu arte abian jarritako greba dinamikari jarraipena eman eta horren intentsitatea igotzeko. Langileen atxikimendua edukiz gero, ELAk grebak sostengatzeko baliabideak ditu. **Hezkuntza publikoa indartzeko, denok grebara!**

Hezkuntza Publikoa indartzeko **DENOK GREBARA!**

Sukalde eta garbiketa:

U30-31 eta 019-20



1. **Lan zamak arindu!**
2. **Erretiroa aurreratzeko neurriak.
Gazteberritze plana!**
3. **Erosahalmena berreskuratu!
KPIak langile denontzat!**
4. **Enplegua egonkortu eta bermatu.
Behin behinekotasun erreala %8ra jeitsi
kontsolidazio bidez!
Fusio eta itxiera bidezko lanpostu
suntsiketarik ez!**
5. **Ordezkoen lan baldintzak hobetu eta guztion
lizentziak eta baimenak hobetu**
6. **Lan osasuna lehen lerrora!**
7. **Berdintasun eta euskara
planak garatu!**